

632. ZENBAKIDUN **ALKATETZAREN DEKRETUA**

Xedea

Bermeoko Udaleko, bere organismo autonomoetako eta Berualako lanpostuen analisia, deskribapenen gaurkotzea eta balorazioa egiteko zerbitzu kontratua publikitate bako prozedura negoziatu bidez esleitzea.

Aurrekariak

Bakarra: 2014ko urtarrilaren 20an izandako Tokiko Gobernu Batzarrak Bermeoko Udaleko, bere organismo autonomoetako eta Berualako lanpostuen analisia, deskribapenen gaurkotzea eta balorazioa egiteko zerbitzua kontratatzeke administrazio-baldintza teknikoak eta deialdia zabaltzea onartu zituen.

Argudioak

Lehenengoa: Prozedura negoziatu honetan parte hartzeko hiru (3) enpresari zabaldu zaie gonbitea eta epea amaitu ondoren, enpresa bakarrak aurkeztu du proposamena, ATTEST enpresa hain zuzen ere.

Bigarrena: ATTEST enpresak aurkeztutako dokumentazioa aztertu zen eta eskatutakoa betetzen zuela ziurtatu zen. Halaber, Administrazio-baldintza zehatzen 17. atalean zehaztutakoa kreditatu zuen, esleipen prozedura honetan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa baitzen administrazio ezberdinentzat gutxienez lanpostuen balorazio bat egin izana kreditatzea.

Hirugarrena: Behin esleipen proposamena egiteko betebeharrak guztiak betetzen zituela kreditatuta, behin betiko bermea ipintzeko errekerimendua egin zitzaien eta bermea emandako epean jarri zuen. Hori horrela, esleipena egin daiteke.

Erabagia

Goian aitaturakoa kontuan hartuta, honako hau erabaki dut:

LEHENENGOA: **ATTEST** enpresari esleitzea Bermeoko Udaleko, bere organismo autonomo eta Berualako lanpostuen analisia, deskribapenen gaurkotzea eta balorazioa egiteko zerbitzu kontratua.

BIGARRENA: ATTEST enpresarekin dagokion kontratua sinatzea.

Bermeon, 2014ko abuztuaren 18an
JARDUNEKO ALKATEA

NIRE AURREAN
JARDUNEKO IDAZKARIA